

Udal honen 2018ko aurrekontua osatu da, pentsatzekoa den bezala, gastuen aurreikuspena eta gastu horiek estaltzeko aurreikusitako sarrerak kontuan izanik.

2018ko aurrekontua 20.150.000 eurokoa da, beraz, iazkoa baino % 4,06 handiagoa.

Esan beharra daukat ez nagoela guztiz gustura, eta hau ez dela izan daitekeen aurrekonturik egokiena; beste behin ere ez baitugu behar adina baliabide, nahi genituzkeen diru-izendapen guztiak egin ahal izateko. Baina hori esan ondoren, segurtasun berberarekin esan beharra daukat aurrekontu arduratsua dela, benetakoa, eta gastu publikoaren eraginkortasuna bilatzen duena. Aurrekontu honetan zuhurtziaren printzipioa erabili dugu, diru-sarreraren aurreikuspena egiteko garaian; gobernu honek printzipio hori erabili du egindako aurrekontu guztietan. Eta "osagai" horiek guztiek eraman dute Gobernu hau administrazio kaudimendun eta, batez ere, errealista izatera.

Bestalde, eta udal kontu-hartzailearen txostenean jasoa dagoen arren, garrantzitsua iruditzen zait memoria honetan espresuki jasotzea aurrekontu honek aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzen dituela.

Ez ditut zehaztuko atalez atal eta sailez sail 2017ko aurrekontuarekiko kontu-sailek izandako igoerak eta jaitsierak, erraz egiaztatu baitaiteke hori; baina igoerarik nabarmenenak aipatuko ditut, hau da, aurrekontu igoeraren batez bestekoa gainditzen dutenak: Euskara % 12,15, Kultura % 5,28, Gazteria % 4,09 eta, bereziki, Hirigintza, non ohiko aurrekontua % 16,67 igotzeaz gain, 683.588,76 euroko inbertsioa aurreikusten den, gehiena beste administrazio batzuetatik datorrena.

Pertsonaleko kapitulari dagokionez, esan beharra dago korrelazioa dagoela aurrekontuan sartutako pertsonaleko gastuen eta pertsonalari dagokion eranskinetako gastuen artean; eta kapitulu horren aurrekontua 8.914.575 eurokoa dela, aurreko ekitaldikoa baino % 2,92 handiagoa. Puntu horretan adierazi beharra dago, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legerik ez dagoenez, ez dela soldaten igoerarik jaso 2018ko aurrekontuan.

Benetako inbertsioen kapitulari dagokionez, uste dut espresuki adierazi beharrekoa dela kapitulu hori aurreko urtearekiko % 42,75 igo dela. Eta arlo horretan nabarmentzekoa da Hirigintza saileko "BEEL ikerketa eta lan teknikoak" eta "proiektuak eta zuzendaritzak" kontu-sailetan izandako igoera handia. Igoera horrekin udal honetan maiz izan dugun gabezia bat arindu nahi izan dugu nolabait, zorroan idatzitako proiekturik ez izatearena, alegia. Halaber, espresuki aipatu nahi dut kapitulu honetan Irigarritasun Plan baten lanketa aurreikusi dela. Ziur aski Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatuko dugu, eta horrekin ezagutuko dugu zer puntu zehatzetan esku hartu behar dugun, gure udalerrira guztiontzako irigarria izan dadin.

Nolanahi ere, aurreratu nahi dut 2018ko inbertsioak ez direla izango soilik aurrekontu honetan jasotakoak; inbertsio gehiago ere izango da, beste erakunde batzuekin batera finantzatuko direnak, akordioen bidez. Inbertsio horien adibide bat da Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Departamentuarekin sinatuko den hitzarmena, aurreko urteetan

bezala; dirudienez, inbertsioa eta baldintzak aurreko urteetako antzekoak izango dira. Zalantzarik gabe, Gobernu honek erakutsi du beste erakunde batzuetan finantziarioa bilatzeko gai dela, eta egun errealitate direla, bestela gauza ezinak izango liratekeen inbertsio batzuk. Beti horrela izan dela esango dute, baina hori ez da guztiz egia.

Bestalde, adierazi nahi nuke benetako partaidetzazko aurrekontu prozesu bat burutu dela. Lehen aldiz gauzatu da prozesu hori, eta lehen aldiz jaso dira aurrekontu honetan herritarrek proposatutako jarduketak, guztira, 200.000 euroko gastua izango duten jarduketak.

Izango da zer hobeturik, hurrengo urteetan parte-hartzea handiagoa izan dadin, ez baita nahi genukeen adinakoa izan; baina hasi gara behintzat. Aipatu beharra dago partaidetzazko aurrekontuaren bozketan 782 herritarrek hartu dutela parte (baliozko botoak), 16 urtetik gorako eroldaren (14.054) % 5,56.

Sarreraren kapituluari dagokionez, esan dudana bezala, zuhurtasunaren printzipioa ezarri dugu diru-sarrerak aurreikusteko garaian. Jakin badakit esango dutela neurri batean sarrerak igotzea egingarria dela, baina Gobernu honen iritzian, serioagoa eta arduratsuagoa da zuhurtziaz jokatzeko, eta "esneketariaren ipuina" ez irudikatzea.

Udal honen sarrerei buruz luze eta zabal hitz egin genezake, eta gaiak eztabaida sakona eragingo luke. Funtsezko alderdi batzuk aipatzearen, honako hauek izendatuko nituzke: EIOZ, Jarduera Ekonomikoen Zerga, Udal Finantzaketarako Foru Funtza... Baina, diodan bezala, sarreraren eztabaidak askoz ere sakonagoa izan behar du eta, noski, noizbait jarri beharko dugu mahai gainean.

Bukatzeko, berriz ere azpimarratu nahi dut hau ez dela izan daitekeen aurrekonturik onena, baina bai ahalik eta arduratsuen eta serioena; eta Gobernu hau jakitun denez, aurrekontu honetan ez daudela jasota hainbat jarduketa, lanean jarraituko dugu eta beste erakunde batzuetara jotzen jarraituko dugu, albait azkarren jarduketa horiek errealitate bilaka daitezkeen.

Pasaian, 2017ko abenduaren 13an

Izpta.: Izaskun Gomez Cermeño
Alkatea



Los Presupuestos Municipales de este Ayuntamiento para el ejercicio 2018, se configuran, como es de imaginar, como la previsión de gastos y la estimación de los ingresos previstos para cubrir dichos gastos

El Presupuesto para 2018 asciende a la cantidad de 20.150.000 euros, lo cual supone un incremento del 4,06 % respecto al del año anterior.

Una vez más, debo decir que no soy autocomplaciente y, por lo tanto, no es el Presupuesto ideal, y, una vez más, nuestros recursos no son los suficientes para recoger todas las asignaciones que serían las deseables. Pero dicho esto, con la misma seguridad debo decir, que es un Presupuesto responsable, real, tendente a buscar la eficiencia en el gasto público. Presupuesto que ha aplicado el principio de prudencia presupuestaria a la hora de realizar la estimación de ingresos, principio éste que hemos aplicado en todos los Presupuestos que este Gobierno ha presentado. Todos estos "ingredientes", nos llevan a que este Ayuntamiento sea una Administración solvente y ante todo, realista.

Por otro lado, y aunque consta en el informe de la Intervención municipal, considero importante que quede constancia expresa en esta Memoria que este Presupuesto cumple con los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y la regla de gasto.

No voy a detallar Capitulo por Capitulo y Departamento por Departamento, los porcentajes de incremento o decremento que sufren los mismos en comparación con los Presupuestos del 2017, ya que es fácilmente comprobable, pero por reseñar los más significativos mencionaré los que superan la media de incremento del presupuesto: Euskera un 12,15%, Cultura un 5,28 %, Juventud un 4,09% y especialmente Urbanismo, que incrementa su presupuesto ordinario en un 16,67% y además contempla 683.588,76 euros de inversiones, la mayoría con financiación finalista de otras administraciones.

Respecto al **Capitulo de Personal**, decir que existe correlación entre los Gastos de Personal, incluidos en el Presupuesto y el Anexo de Personal adjuntado al mismo, siendo su importe de 8.914.575 euros, lo que significa un incremento del 2,92% respecto al del ejercicio anterior. Reseñar en este punto que en ausencia de la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado para el 2018, no se presupuesta aumento retributivo de cara al 2018.

Respecto al **Capitulo de Inversiones reales**, señalar, ya que considero que es un aspecto a reseñar expresamente que el mencionado Capitulo, tiene un incremento del 42,75 % respecto al de año anterior, destacando el incremento en el "TROE estudios y trabajos técnicos" y la partida de "Proyectos y direcciones" del departamento de urbanismo, que contemplan un incremento considerable, intentando paliar así, un déficit que ha tenido este Ayuntamiento en reiteradas ocasiones, como es el hecho de no tener en cartera proyectos ya redactados. Otra mención que deseo hacer de forma expresa, en este Capitulo, es la elaboración de un Plan de Accesibilidad el cual, todo apunta a que vendrá cofinanciado por el Gobierno Vasco y con el que conseguiremos de forma integral conocer los puntos de nuestro municipio en los que, sin duda alguna, habrá que actuar con el objeto de hacerlo accesible para todas las personas.

De cualquier forma, avanzo que las inversiones a realizar en el 2018, no solo van a ser las contempladas de forma inicial en este Presupuesto, sino que habrá más, las cuales, vendrán dadas, fruto de los acuerdos con otras instituciones y que nos cofinanciarán las inversiones que proponga este Ayuntamiento . Un ejemplo será, el Convenio a suscribir con el Departamento de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral, como en años anteriores y que, según todo apunta, contemplará inversión similar y en las mismas condiciones. Sin duda alguna, este Gobierno ha demostrado que es capaz de buscar financiación en otras instituciones y que, inversiones que por nuestra capacidad hubieran tenido que esperar, hoy, son una realidad. Se dirá que siempre ha sido así, pero ello no es del todo cierto

Por otro lado, me gustaría reseñar el verdadero **Proceso de Presupuestos Participativos** que se ha llevado a cabo. Por primera vez, se ha llevado a cabo este proceso y por primera vez, actuaciones o propuestas llevadas a cabo por la ciudadanía , tienen reflejo en este Presupuesto, actuaciones que ascienden a 200.000 euros. Estimo que habrá aspectos que mejorar y que nos lleven a una participación mayor en próximos años, ya que la misma, no ha sido la deseable pero hemos comenzado. Mencionar que han participado en la votación del presupuesto participativo 782 pasaitarras (votos válidos), un 5,56% del censo de mayores de 16 años (14.054).

Respecto al **Capítulo de Ingresos**, como ya he mencionado, hemos mantenido el principio de prudencia en la estimación de los ingresos. Soy consciente de que se dirá que es factible incrementarlos en alguna medida, pero este Gobierno considera que es más serio y más responsable, aplicar esta prudencia y no hacernos el *“cuento de la lechera”*.

De los ingresos de este Ayuntamiento, podríamos hablar “largo y tendido” y nos llevaría a un debate mucho más profundo . Por mencionar algunos aspectos sustanciales nombraría; ICIO, Impuesto de Actividades Económicas, Fondo Foral de Financiación Municipal..., pero como digo, el debate de los ingresos debe ser mucho más profundo y que, desde luego, en algún momento, habrá que poner encima de la mesa.

Para concluir, insistir en el hecho de que no es el Presupuesto ideal, pero si el más responsable, serio que ha sido posible y , siendo consciente este Gobierno, de que hay actuaciones que no han sido contempladas en este Presupuesto, seguiremos trabajando y apelando a otras instituciones para que más pronto que tarde, las mismas sean una realidad.

Pasaia, a 13 de diciembre de 2017

Fdo: Izaskun Gómez Cermeño
La Alcaldesa

